

**ERABAKIA, 2019ko martxoaren 15ekoa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, 2019ko otsailaren 1eko Gerentearen erabaki bidez deitutako Gestioko Teknikarien Eskalako (Medikuntza) lan-poltsa zabaltzeko hautaketa-prozesuan onartuak eta baztertuak izan diren hautagaien behin-behineko zerrenda onartzeko.**

Gerentearen 2019ko otsailaren 1eko erabaki bidez Gestioko Teknikarien Eskalako (Medikuntza) lan-poltsa zabaltzeko hautaketa-prozesua deitu zen eta erabaki horren eranskinean deialdi hori arautuko duten oinarriak jaso ziren.

Laugarren oinarriko lehenengo atalean zehaztutakoari jarraiki, UPV/EHUko gerenteak onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzeko erabakia emango du, baztertutakoen kasuan, kanpoan uzteko zioa azalduta.

Arestian adierazitakoagatik eta errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

ERABAKI DUT:

**Lehenengoa.-** Gestioko Teknikarien Eskalako (Medikuntza) lan-poltsa zabaltzeko hautaketa prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko erantsitako zerrenda onartzea.

Lehiakideak hautaketa-prozesuetan behin betiko onartzeak lehiakideek prozesu horietan eskatzen diren baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela ulertzea dakar, lehiakideek aurkeztutako eskaeretan egiazkotzat aitortu dituzten eta eman dituzten datuen arabera. Edonola ere, lehiakideen behin betiko onarpena 9.2 oinarrian adierazitakoari kalterik giteke ulertuko da.

**Bigarrena.-** Erabaki hau UPV/EHUK horretarako prestatutako web orrian (<http://www.ehu.eus/eu/web/azp/deialdiak>) argitaratzeko agindua ematea.

**Hirugarrena.-** 4.1 oinarri orokorrean zehaztutakoaren arabera, bost egun balioduneko epea ezartzea onartutakoen eta baztertutakoen zerrendaren aurkako erreklamazioak egiteko, edo, hala dagokionean, baztertzea eragin duen arrazoia zuzentzeko.

Aipatutako epearen barruan baztertzea – edo, hala dagokionean, zerrendetako batean ere ez agertzea – eragin duen akatsa egiaztagiri bidez zuzentzen ez duten hautagaiak onartutakoen zerrendan sartzeko eskubide guztiak galduko dituzte.

Leioan, 2019ko martxoaren 15ean

Miren Lorea Bilbao Arteche

UPV/EHUko GERENTEAK

